

OSO GUNEKO ERAKASKERA

1997-98ko IKASURTEA.

I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Entzun duzueia errobiako uholdaz mintzatzen?
2. Noiz gertatu zen. Izigarria zena?
3. Erran zertako.

UHALDEA¹

Joan den astelehen eguerditik oren bat ondoxean ohartzen hasi dire Baionan *la Nive* Kanbotik heldu den ura² goiti doala eta dena lur gorri, zikin, oro purkateriaz³ bethea.

Begiz ikus ahala zalhu eta gaindi joaki, gero-ta zurruburu gehiagorekin. Metaka heldu, itsas-ura samur denean bezala, mailka⁴; gibelesko⁵ maila bethi aitzinekoa baino gorago.

Zer da hau? Leihotarik beha, ur hegiko egoiliarrak oro. Uraren bi bazterrak eta hiru zubien gainak oren laurden batez betheak jendez.

Oro harrituak, non zer othe zen eta zeri ginauden!

nahartean, ura bethi gaindi, oldar gaitzean: lapar⁶, egur, abar⁷ eta bizi, solido, emai⁸ zahar, laborantzako tresna, kadira⁹, ohe somier, athe-leiho, arbola oso errotik jali, gero-ta gehiago eta handiago; behi bat; zonbeit ardi; xerrikume eta urde larri... bat segurik¹⁰ hiru kintalez goitiko; zaldi, asto; ahate, antzara, oilo, zakhur, apotzar, suge, musker ferde¹¹, han iragaiten ikusi ez dutenik ez da.

Hil kutxa bat ere ba omen.

Batek hau ikusi, bertzeak hura. Ez balinba! Nola ditake hori?

Bizi ala hil? Hango erasia!

Eta oro beha, begiak luzatuz urerat. Huna suge alimale¹² bat, haur baten besoa bezala, lephoa goiti altxatuz doala. —Bizi? —Ba naski! Beha zozu, gizona. —Huna bertze bat, ur hegirat ezin helduz ari; bipera¹³ izan behar da, —Ez —Ba...

Parasol giderraz batek laguntzen du sugea hegiratzen. Jali orduko, han berean kali¹⁴.

Jreko sugeak izan behar ziren oro edo gehienak. Mendian urak lo hatzeman zonbeit ere ba naski.

Sant-Izpiritako ur hegi harri lauzaz estalietan omen zen biharamunean frango ageri suge hetarik, multzoka, nonahi. Beharrik ez dezakete min handirik nehoi egin suge urekoek. x

III) ADITZ IKASKUNTZA

- | | |
|-----------------|--------------------|
| 31. Goiti doala | 32. Zeri ginauden. |
| 33. Nola ditake | 34. Ez dezaketē. |
| 35. Beha zozu | |

31. JOAN. Indicatif.

Présent

- Ni noa = (je vais)
 Hi hoo = tu vas
 Zu zoatzi = vs allez
 Hura doa = il va
 Gu goatzi = {
 Zuek zoazte = }
 Hek doatzi = etc.

Subjonctif.

Présent (Imparfait musicé)

- Ni noan = que j'aie
 Hi hoan = que tu aies
 Zu zoazin = que vs alliez
 Hura doan = qu'il aie
 Gu goazin = que vs allions
 Zuek zoazten = que vs alliez
 Hek doazin = qu'ils aillent

32. EGON. Indicatif Imparf.

- Ni mindagon = je restais
 Hi mindagon = tu restais
 Zu zinauden = vs restiez
 Hura zagon = il restait
 Gu ginauden = {
 Zuek zinaudetzen = }
 Hek zauden = etc.

Conditionnel. Présent ou futur.

- N. mindagoke = je resterais
 H. mindagoke = tu resterais
 Z. zinauzke = vs resteriez
 H. lagoke = il resterait
 G. ginauzke = {
 Z. zinauzkete = }
 H. lauzke = etc.

34. UKAN. Potentiel. Présent. Objet sing. et Objet pluriel

- | | |
|------------------------------------|--------------------------------------|
| Nik ukan dezaket = je peux l'avoir | N. ukan ditazket = je peux les avoir |
| Hi k ukan dezakekin | H. " ditazkekin = |
| Zuek " dezakezu | Z. " ditazkezu = |
| Harek " dezake | H. " ditazke = |
| Guek " dezakegu | G. " ditazkegu = |
| Zuek " dezakezue | Z. " ditazkezue = |
| H...k " dezaketē etc | H. " ditazkete = etc. |

33. IZAN. Potentiel Présent.

- Ni izan naiteke (mitake) = je peux être
 Hi " haiteke = tu peux être
 Zu " zaitezke = vs pouvez être
 Hura " daiteke (ditake) = il peut être
 Gu " gaitezke = ns pouvons être
 Zuek " zaitezkete = vs pouvez être
 Hek " daitezke = ils peuvent être